

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko abenduaren 19tik abenduaren 23rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: HIRUHILEKO BPGd

	Est. PIB 3º Trim	Diferencia	1ª Revisión	Diferencia	2ª Revisión
Total	2,90%	0,30%	3,20%	0,30%	3,50%
Consumo privado	1,47%	0,42%	1,89%	0,14%	2,03%
Consumo público	0,09%	-0,04%	0,05%	0,09%	0,14%
Inversión	-0,09%	-0,06%	-0,15%	0,17%	0,02%
* No residencial	0,15%	-0,13%	0,02%	0,16%	0,18%
* Residencial	-0,24%	0,07%	-0,17%	0,01%	-0,16%
Inventarios	0,61%	-0,12%	0,49%	0,00%	0,49%
Sector Exterior	0,83%	0,04%	0,87%	-0,02%	0,85%

Datuaren analisisia

Hirugarren hiruhileko BPGd-a gorantz berrikusi da; % 3,2tik % 3,5era igo da. Horixe izan da ekoizpenaren behin betiko berrikuspena. Bada, % 3,5eko hazkundera (urtekotua) azken bi urteetako handiena izan da. Berrikuspen horren arabera, kontsumoaren hazkunde urtekotua % 3koa izan zen udako hilabeteetan, eta % 2,8koa bigarren balioespenean. Enpresen inbertsio finkoa, bestalde, % 1,4 hazi zen aurreko balioespenean aldean (% 0,1). Aitzitik, familien erosketak ekonomiaren % 70a dira ia-ia, eta % 3 egin zuten gora (tasa urtekotuan), alde zuzenetik kalkulaturako % 2,8aren aldean. Nolanahi ere, familiek etxebizitzan egindako inbertsioa % 4,1 (urtekotua) jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan, nahiz eta beste hiruhileko batzuetan hedapen ekonomikoaren sustatzaile izan.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: IFO ALEMANA



Datuaren analisisia

Abenduan, enpresen konfiantza-indizea 111 puntutara igo zen Alemania osoan (balio maximoa 2014ko otsailetik), azaroko 110,4 puntuen eta esperotako 110,6 puntuen aldean. Igoera horren eragilerak gaur egungo egoeran pertzepzioa izan da, 116,6 puntutaraino igo baita (balio maximoa 2012ko otsailetik), esperotako 115,9 puntuen eta aurreko 115,6 puntuen aldean. Halaber, datozen hilabeteetarako aurreikuspena neurtzen duen osagaia dezima bat igo da, 105,6raino (espero zena). Europako egutegi politikoa gorabehera (hauteskundeak Holandan, Frantzia, Alemanian...), aurreikuspen ekonomikoaren indizeak hobera egiten jarraitzen du, hazkunde orokorraren aurreikuspenari, euroaren ahultasunari eta barne eskariaren gorakadari esker. Jarduera sektoreei dagokienez, kontsumoa indartsu dagoela azpimarratu behar da.

Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jarduera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisisia

Aurreko hilarekin alderatuta, Euroguneko kontsumitzaileen konfiantza nabarmen igo zen abenduan, -5,1 puntutan kokatu baitzen, azaroko -6,2 puntuen (eta esperotako -6aren) aldean; Europako Batzordeak prestatzen duen indizearen emaitzarik onena 2015eko apiriletik. Europar Batasunean, bestalde, kontsumitzaileen konfiantza 1,2 puntu igo zen, -4,6 puntutaraino; emaitzarik onena iragan urtarriletik. Datu hori Euroguneko hazkunde ekonomikoaren azelerazioarekin bat dator, 2016ko laugarren hiruhilekoan bizitakoa eta, kontsumo pribatuak izandako igoerari esker, 2017aren hasieran finkatutakoa.

Adierazlearen azalpena


Kontsumitzailearen konfiantzaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Europako Batzordeak argitaratzen du hilero. Euroguneko milaka kontsumitzaileari gastu pertsonalaren patroiei eta inflazioaren inguruko aurreikuspenei buruz egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BOJ

Japoniako Bankuak (BoJ) epe luzeko tasak igotzea lortu du



Datuaren analisisia

Japoniako Bankuak epe motzeko interes-tasak $-\% 0,1$ era eramateko eta 10 urterako bonu subiranoen etekina $\% 0$ an kokatzeko konpromisoa mantendu zuen. Ia lau urtetan lehen aldiz Japoniako ekonomiaren inguruko bere aurreikuspenek hobera egin zuten, esportazioen eta, neurri txikiagoan, barne eskariaren gorakadari esker. Gainera, ikuspegi positiboagoa marraztu zuen, ekonomia japoniarraren hazkunde arina aurreikusi zuelako hurrengo urterako, eskala handiko zerga-pizgarrien eta yenaren jaitsiera handiagoaren eraginez.

Adierazlearen azalpena

Japoniako Banku Zentrala da BoJ. Banku-sistema osoa kontrolatzen du, nahiz eta herrialde industrializatu etako banku zentral gehienek baino autonomia txikiagoa izan. Horra bankuaren zenbait helburu: diru-papera jaulkitzea eta kudeatzea; diru-politika egitea; Altxor Publikoko baloreekin eta Administrazioarekin loturiko jarduerak; datuak biltzea, azterketa ekonomikoak eta ikerketa jarduerak. Japoniako Bankuak ekonomia nazionalaren garapenean lagundu nahi du bere diru-politikarekin, prezioen egonkortasuna bermatuz.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
26/12	Japonia	YoY IPP zerbitzuak	% 0.5
26/12	Japonia	CI lider indizea	--
26/12	Japonia	Aldibereko Indizea	--
27/12	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.5
27/12	Estatu Batuak	Conf. Board Consumer Confidence	108.5
27/12	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	--
27/12	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 1.2
28/12	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	% 1.7
28/12	Japonia	Hileko xehekako salmentak	-% 0.5
28/12	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
28/12	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	107.5
28/12	Estatu Batuak	Egiteke dauden etxebizitzaren salmentak urte artekoak	--
28/12	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	10.2
29/12	Eurogunea	M3 YoY diru-eskaintza	% 4.4
29/12	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.2
29/12	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	265000
30/12	Espainia	Urte arteko KPIa	% 0.9
30/12	Espainia	Kontu korrontearen balantza	--
30/12	Italia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
30/12	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	56.5

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Aldaketa gutxiko astea burtsa-indize nagusietan. Eguberri aurreko negoziazio kopuru urriak eragina izan zuen burtsan, eta asteko datu makroekonomikoetan ez zen aldaketa handirik izan. Europan, finantza sektoretik etorri ziren berri garrantzitsuenak; izan ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiari jarraiki, Espainiako bankuek zoru klausuladun bezeroei kobratuak dirua itzuli beharko dute. Monte dei Paschi banku italiarra izan da asteko beste protagonista, erreskatea behar duela jakin baita. AEBetan Deutsche Bank eta Credit Suisse erakundeak izan dira albiste, zabor hipotekekin lotutako ordainketa akordioak egin baitituzte. Horiek horrela, Europan, sektorean eragin handiagoa duen Ibx 35 indizeak jaitziera arinak izan zituen. Eurostoxx indizeak, aldiz, gora egin zuen, eta 2016a bariazio positiboarekin amaitzea lortu zuen. Atlantikoaren bestaldean aurrerapauso txikiak eman ziren: burtsa nagusiak positiboan eta Nasdaq eta Dow Jones indizeak maximo historiko berrietan. Dolarraren sendotasunak, bestetik, burtsa gorakorrei kalte egin die, eta Japoniari, berriz, lagundu egin dio.

ERRENTA FINKOAK:

Aste lasaia zorraren merkaturan, bonuek gora egin baitzuten azkenean. Europari dagokionez, Alemanian portaera hobea izan du merkatu periferikoetan baino. Alemaniako Bundaren errentagarritasunak 10 oinarritzko puntu egin zuen behera, % 0,22raino, eta Espainiako bere homologoak 5 oinarritzko puntu, % 1,38raino. Arrisku sariak, beraz, gora egin zuen, 116 oinarritzko puntutaraino. AEBetan, merkatuaren mugimenduak Europakoan antzekoak izan ziren, eta 10 urterako tasa % 2,54raino jaitzi zen. Hobekuntza kredituaren diferentzian, batez ere kreditu-kalitate okerrenekoan.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Erreserba Federalaren babesak, diru-politika murriztailea bultzatuz, eta iragan astean jaun eta jabe izan zen urduritasun geopolitikoak dolarra babes aktibo bezala finkatzen lagundu zuen. Bada, indartsu jarraitu zuen aste osoan, eta truke-tasa 1,04 \$/€-an geratu zen (azken 14 urteetako minimoa). Liberak, bestalde, balioa galdu zuen euroaren aldean: 0,85 £/€. Lehengaien kasuan, petrolio gordinaren asteko inbentarioen datua ustekabean igo zen AEBetan, eta petrolioaren prezioa 54,38 \$/upela mailaraino jaitzi zen. Urreak egonkor jarraitzen du: 1.133 \$/ontza.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.374,45	0,25	7,57
IBEX 35	9.367,70	-0,48	-1,85
DJ EURO STOXX 50	3.273,97	0,45	0,20
DJ STOXX 50	2.998,33	-0,18	-3,29
FTSE	7.068,17	0,81	13,23
S&P 500	2.263,79	0,25	10,76
Dow Jones	19.933,81	0,46	14,40
NASDAQ	5.462,69	0,47	9,09
NIKKEI 225	19.427,67	0,14	2,07
MSCI EMERGENTES (Lo)	46.592,01	-1,77	4,74
MEXBOL	45.173,54	0,12	5,11
BOVESPA	57.937,11	-0,77	33,65
SHANGHAI	3.256,41	-0,41	-12,09
Rusia Rts Moscú	1.117,92	-1,55	47,67

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2016
ALEMANIA 2 URTE	-0,79	0,01	-0,44
ESPAINIA 2 URTE	-0,27	-0,01	-0,27
AEB 2 URTE	1,20	-0,05	0,15
ALEMANIA 10 URTE	0,22	-0,09	-0,41
ESPAINIA 10 URTE	1,38	-0,05	-0,39
AEB 10 URTE	2,54	-0,05	0,27
ALEMANIA 30 URTE	0,92	-0,13	-0,57
ESPAINIA 30 URTE	2,58	-0,12	-0,40
AEB 30 URTE	3,11	-0,06	0,10
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	70,18	-1,75	-7,09
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	284,82	-8,06	-29,80

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,04	-0,02	-3,76
Yena / Euroa	122,65	-0,66	-6,62
Libera / Euroa	0,85	1,86	15,44

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brent)	54,38	-0,22	52,11
Urrea	1.133,95	-0,08	6,83

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.